Getxo
bizi ezazu

**Orri kopurua** / Nº de páginas: 3 **Data** / Fecha: 2018/09/10

**PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA**

Asteazken honetan, hilak 12, parte-hartzeko saioen fase berria hasiko da

**250 lagun inguruk hartu du parte Hiri-Antolamendukoko Plan Orokorra-HAPOren Aurrerakinari buruzko saio informatiboetan**

Este miércoles, día 12, se inicia una nueva fase de sesiones participativas

**Alrededor de 250 personas han participado en las sesiones informativas sobre el Avance del Plan General de Ordenación Urbana-PGOU**

250 lagun inguruk hartu du parte Getxoko HAPO, Hiri-Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerakinari buruzko aurrez aurreko lau saio informatiboetan, Udalak antolatuta. Kopuru horri gehitu behar zaio beste berrogeita hamar bat lagunena, saio horietan online bidez parte hartu dutenak.

Parte hartzeko azken modu horri dagozkion datu garrantzitsuenei dagokienez, parte-hartze edo jakinmin handiena biztu duen gaia lurralde- eta hiri-estrategiarena izan da; gainontzeko gaien aldean interes handia biztu du gainera. Haren ondotik datoz, biztutako jakinminaren aldetik, honako gai hauek: etxebizitza, ondarea eta jasangarritasuna eta aldaketa klimatikoa. Azken hori izan da, hain zuzen, adostasun positibo handiena sortu duena parte-hartzaileen artean; horren ondoren ondarea eta natura eta paisaia daude. Aldiz, adostasun maila txikiena eragin duten gaiak, lurralde- eta hiri-estrategia, ekipamenduak eta azpiegiturak eta etxebizitza dira.

Parte-hartzaile gehienak Getxoko bizilagunak

Alrededor de 250 personas han participado de forma presencial en las cuatro sesiones informativas organizadas por el Ayuntamiento sobre el Avance del Plan General de Ordenación Urbana-PGOU de Getxo. A esa cifra habría que añadir la de cerca de medio centenar de personas que han tomado parte en dichas sesiones vía online.

En cuanto a los datos más relevantes referidos a esta última modalidad participativa, el tema que mayor participación o interés ha suscitado, con gran diferencia respecto al resto, ha sido el de la estrategia territorial y urbana, seguido por los de vivienda, patrimonio y sostenibilidad y cambio climático. Ha sido, precisamente, este último el que mayor grado de consenso positivo ha suscitado entre las y los participantes, seguido por el de patrimonio y medio natural y paisaje. Por contra, los temas que menor grado de consenso han suscitado han sido los de estrategia territorial y urbana, equipamientos e infraestructuras y vivienda.

La mayor parte de las personas participantes son vecinas de Getxo, principalmente de Algorta

OHARRA: Faxa hartzean arazoren bat eduki baduzue edo goian esandako orriak hartu ez badituzue, deitu mesedez telefono honetara: 94 466.03.20

NOTA: Si han tenido algún problema en la recepción del fax o no han recibido el número indicado de páginas, por favor contacten con el teléfono: 94 466.03.20

dira, batez ere Algorta eta Andra Marikoak, eta gizonezkoak.

**Parte hartzeko saioak**
Bestalde, HAPO-Aurrerakinaren fase berria abiatuko da dagoeneko, non bost saio parte-hartzaile egingo diren, horietako hiru publikoak eta bi fokalak (adinekoak, gazteak, emakumeak, etorkinak , auzo elkarteak, ingurumena, jarduera ekonomikoa etab.). Lehena (saio publikoa), asteazken honetan, hilak 12, eta irailaren 26koa (talde fokalaK: nagusiak, gazteak, emakumeak, etorkinak eta auzo elkarteak) Romo Kultur Etxean egingo dira. Irailaren 19koa (publikoa) eta urriaren 3koa (talde fokalak: kultura, ingurumena, osasungintza eta jarduera ekonomikoko arlokoak) Villamonteko Kultur Etxean. Eta irailaren 27koa (publikoa) Andra Mariko kiroldegian. Saio guztiak 19:00etan hasiko dira.
Saio publikoak leku desberdinetan egingo dira HAPO Getxoko hainbat lekutara hurbildu eta asistentzia erraztu nahi delako. Saioen edukia, baina, HAPO bere osotasunean izango da beti.
Parte-hartzeko saioetan izena emateko:
https://hapo-getxo.eus/emanizena_getxohapo
Online parte hartzeko, urriaren 15era arte:
www.hapo-getxo.eus/eu/hapogetxopartehartu

Aldi berean, HAPOren talde teknikoak udalerriko ikastetxeetara joko du, haurren eta gazteen ikuspuntua jasotzeko asmoz.

Gogoratu, azkenik, urriaren 15era arte daudela jendearentzat zabalik planari buruzko hiru informazio-erakusketak (RKEn, Andra Mariko kiroldegian eta Algortako Kultur Etxean). Online bidezko inkesta baten bitartez ere parte har daiteke, batzar indibidualak eska daitezke teknikariekin eta iradokizun eta

y Andra Mari, y el género masculino.

**Jornadas participativas**
Por otra parte, se inicia ya una nueva fase del Avance del PGOU en la que se celebarán cinco sesiones participativas, tres de ellas públicas y dos con grupos focales (personas mayores, jóvenes, mujeres, inmigrantes, asociaciones vecinales, medio ambiente, actividad económica, etc.). La primera, este próximo miércoles, dia 12 (pública), y la del día 26 de septiembre (grupos focales de personas mayores, jóvenes, mujeres, inmigrantes y asociaciones de vecinos) serán en la Romo Kultur Etxea. Las de los días 19 de septiembre (pública) y la del 3 de octubre (grupos focales dedicados a cultura, medio ambiente, salud y actividad económica) se harán en el Aula de Cultura de Villamonte. Y la del 27 de setiembre en el polideportivo de Andra Mari (sesión pública). Todas las sesiones comenzarán a las 19:00h.
Las diferentes ubicaciones de las sesiones públicas tienen el objeto de acercar el PGOU a diferentes localizaciones de Getxo, para facilitar la asistencia, pero el contenido siempre será el PGOU en su globalidad.
Para la inscripción en las sesiones participativas: https://hapo-getxo.eus/es/node/5286.
Participación online hasta el 15 de otubre: www.hapo-getxo.eus/es/hapogetxopartehartu.

En paralelo, el equipo técnico el PGOU contactará con los centros eduativos del municipio a fin de recabar el punto de vista de la infancia y la juventud.

Recordar, por último, que hasta el 15 de octubre permanecen abiertas al público las tres exposiciones informativas sobre el plan (en la

KALTEA LEPOAN DAGIANAK BIZARRA
Getxo
bizi ezazu

proposamenak egin daitezke Hiritarren Arretarako Bulegoetan.

Informazio guztia: www.hapo-getxo.eus. HAPO Berrikusteko Bulegoa, zalantzak argitu eta aurretiko hitzorduak eskatzeko: tel. 94 466 01 77.

RKE, polideportivo de Andra Mari y Aula de Cultura de Algorta). También se puede participar en la encuest online, se pueden tener reuniones individuales con los técnicos y se pueden registrar sugerencias y alternativas en las Oficinas de Atención al Ciudadano.

Toda la información en www.hapo-getxo.eus. Oficina de Revisión el PGOU para dudas y citas previas: tfno. 94 466 01 77.

**(*) Argazkiak eskuratzeko:**
**http://www.getxo.eus/prensa.**
**Pasa-hitza: fotosycortes**

**GetxoUdala**

**Prentsa Bulegoa:** 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti.
Adeitasunez.

**(*) Para acceder a fotografías:**
**http://www.getxo.eus/prensa.**
**Contraseña: fotosycortes**

**GetxoUdala**

**Oficina de prensa:** 94 466 03 20.

Rogamos la difusión de esta nota. Agradecemos la atención que siempre nos prestáis.
Atentamente.

OHARRA: Faxa hartzean arazoren bat eduki baduzue edo goian esandako orriak hartu ez badituzue, deitu mesedez telefono honetara: 94 466.03.20

NOTA: Si han tenido algún problema en la recepción del fax o no han recibido el número indicado de páginas, por favor contacten con el teléfono: 94 466.03.20